

LIBURUAK

Beste «Euskal izendegi» bat


Euskal izenak ez ezik, santoralekoak eta bestelako batzuk ere dakartza honek

FELIX IBARGUTXI

NESKA-MUTIKOEI euskal izenak ipini nahi dietenei lagundu nahian, Pamiela argitaletxeko lan-talde batek, Eduardo Gil Bera buru dela, «Euskal izendegia» deritzana eman du argitaratu. Euskal izenak ez ezik, euskaldun jendeak erabili ohi dituen bestelako hainbat izen ere badakar.

Egun bakoitzari hiru edo lau pertsona-izen ipini dizkiote egileek. Aurreneko izena, santoralekoa. «Azken batean izen horietan dira hedatuena eta, orain artean, estimatuena», esan digu Gil Berak. Ondoren, bestelako izenak datoz.

«Gure erizpide nagusia erabileraz izan da —dio Gil Berak—. Ahoko munduan nahiz euskal letratan erabiliak izan diren, horri begiratu diogu. Badakigu guk sartutako batzuk goitizena direla azken batean, baina erabiliak izan direnez kontuan hartu ditugu horiek ere. Ez dugu nahi gurea ofizialtzat hartua izan dadin, gainera ez dakigu horko izen guztiak Erregistro Zibilean onartuak izango diren. Gorabehera horri ez diogu




Eduardo Gil Berak koordinatu du lan-taldea.

begiratu, izen horiek zenbateraino erabiliak izan diren, hori izan da gure erizpidea».

Gaurko, ekainaren 17erako, esaterako, izenok proposatzen dituzten Pamielako izendegiak: Auria, Artizarra eta Obelix. Biharko, be-

rriz, Oria, Larra eta Priamo.

Orain arte, jendea Euskaltzaindiko liburu batez baliatu da, gehienbat. Hark ere «Euskal izendegia» du izena. Aurreneko edizioa 1972an izan zen, orain hirugarrena dago kalean eta guztira



Liburuaren azala.

160.000 ale eman dira argitaratu.

Euskaltzaindiko obra hura Jose Maria Satrustegik burutu zuen. Berak aditza eman digunez, «ez dut konprenitzen nola izen bera jarri dioten beste izendegi honi, baina tira, beraiek jakingo dute zertan ari diren. Errespetatu egin beharko litzateke lehenetik marrazteko».

Gil Berak, Satrustegiren eritzi honen berri jakitean, erantzun digu euren izendegia oso diferentea dela eta badakitela Euskaltzaindiko dela ofiziala.

Katalogoaren azala.

Donostiako Udal Liburutegiko aldizkako argitalpenak

Donostiako Udal Liburutegian dauden aldizkako argitalpenen katalogoa burutu du Gipuzkoako Bibliotekari Dokumentalisten Elkarteak. Liburuskak horri kalean da jadanik, Gipuzkoako Foru Diputazioak argitaratu eman.

Besteak beste, aspaldiko egunkari eta aldizkari biltuma dago liburutegi hartan: Diario de San Sebastián, El Urumea, El Eco de San Sebastián, El Guipuzcoano, El Correo de Guipúzcoa, La Voz de Guipúzcoa, La Constanza eta Euskal Herria.

DISKOAK

Lehengoari eutsi egiten dio Ganbarak



Ganbara-ko lagunak. Ezkerreko muturrean bertako kantari nagusia, taldean hasi berria: Garbiñe Benítez Enbil.

Ganbara. Buhamien balleta. Elkar.

INAKI ZARATA

BAZIRUDIEN, orain bi urte, pauso estilistiko berriak ematen hasiko zela Ganbara. Ematen zuen pauso berritzaileagoak emango zituela, new age deitura jarrian sartzen diren aire aldera jo. Orain aste batzuk beste disko bat atera dute, *Buhamien balleta* deritzana, euren bosgarren emaitza, eta garbi geratu da gure uste hori ustela zela, oraingo ez dutela aldaketa na-

barrenik egiteko asmorik.

Folk talde honek eutsi egin nahi dio lehengo martxari. Inork dudarik egin ez dezan, «musika tradizionala» ipini dute diskoan.

Guztiz tradizionala ere ez da, guztiok ederki bait dakigu zein izan den Ganbara-ren orain arteko eginkizuna: aire tradizionalak hartu eta egokitu eta gaurkotu. Horixe egin izan du taldeak sortu zen ezkerroztik, 80.eko hamarkada hasiera aldera.

Diskoei begiratu bat eman ezkerro, garbi geratzen da nola «neofolk» tankerako zerbait egin nahi

izan duten Ganbara-koek. Hona zerrenda: *Behin batean* (Sofua, 1983), *Banan baman* (Elkar, 1986), *Harat homat* (Elkar, 1988) eta *Ganbaratik* (Elkar, 1989).

Zubero aldean, batetik bestera zebiltzan bohemia eta ijito jendearen zitziaon «buhamia». Pastoral klasikoetan askotan azaltzen dira horrelako pertsonalak. Eta Ganbara taldeak izen ipini dio diskoari Zuberoko aire zahar bat topatu zutelako Parisen artxibategirik artxibategi ibili zirenean. XVII. mendeko doinua da, oso fina, balterako eginga dirudiena.

Konpakt-diskoan hamairu kanta datoz; LPan, berriz, hamar beste-rik ez. Lagun batek baino gehiagok kantatzen dute diskoan, baina ahots printzipala emakume batea da: Garbiñe Benítez Enbil-ena. Maria Eugenia Etxeberriak utzitako tokia bete du eta badirudi berri honek beste hark baino bizia- goa duela entonazioa, baina klasi- kotasunetik irten gabe beti ere. Folk euskalduneko ahots tipikoa dirudi.

Instrumentu aldetik berebiziko aberastasuna dugu eta badaude kolaborazio berezi batzuk ere, ha-

la nola Txomin Artolarena bere kitarrarekin eta Amorenarena bere bateriarekin.

Mugaz haruzkaldeko eta hornuzkaldeko aire tradizionalak datoz batipat diskoan; baita euren pieza propio batzuk ere. Testuak oso klasikoak dira; salbuespenik ere badago, esaterako Joserra Ganbariaren poema bat, edota Ganbarako lagun bat edo beste.

Pieza exotiko bat ere badago diskoan, habanera tankerakoa

Folk tradizionala eta musika gaurkotuaren nahasketa hau oso gustora entzuten da. Ukitu berritzailearen eta ausartenak *Gogoa berri-Lumbier*, toki hartako us- teko edertasuna goratuz.

Gaurren hain zaila den folk-aren panoraman ederki maneja- tzen da talde hau. Eta jendea ez dago ahaztuta, noski: abuztu- an Frantzia joko dute, izen handiko batzurrekin batera: Tom Paxton, Pentangle eta marianne Faithfull.